

ESKURAGARRI DAGO EUSKADIN EZARRITAKO KLIMA-EGOKITZAPENERAKO NBSREN BISORE INTERAKTIBOA

Posted on 22/05/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Bisore interaktiboa](#), [Herramientas digitales](#), [Plataforma interactiva](#), [Plataforma interaktiboa](#), [Tresna digitalak](#), [Visor web](#)

[Ihobe](#)k Euskadin ezarritako klima-egokitzapenerako Naturan Oinarritutako Konponbideen (NBS ingelesezko sigletan) [bisore interaktiboa](#) plazaratu du. Horren diseinuan eta garapenean lan egin dugu NAIDERen. EAEko udalerriean eskuragarri dauden NBS praktikei buruzko informazio egituratua ikusteko aukera ematen duen web-tresna esku-hartze berriekin etengabe eguneraszko konfiguratuta dago.

KLIMA 2050 Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2015ean onartu zenean, NBSak politika publiko koordinatu eta finantzatu gisa eratu ziren Euskadin. Ondoriozko hedapen-politiken ondorioz, IHOBEn hainbat tresna eta zerbitzu prestatu ditu eragile eta administrazio publikoei laguntzeko NBSak beren eskumenen esparruan integratzen. NBSrekin egiten diren esku-hartzeak gero eta ohikoagoak izango direlakoan, web tresna bisual bat sortuko da.

